

OIARTZUNGO OSASUN-LANGILEAK ERRAUSKETAREN AURKA

1.- Zabor Errauskailuek arrisku egiaztatu eta agerikoa dakarkiate eraikin horien inguruan bizi diren persona, animalia eta landareen osasunari. Medikuntza arloko ikerketa zientifiko zorrotzen arabera, zaborren errausketarekin (gasekin eta hondakinekin) zerikusia duten patologien kopurua nabarmen handitzen da 10 km-rainoko tartean.

2.- Zaborrak erraustean, dioxinaz, furanoz eta metal astunez osatutako gasak sortzen dira, baita hondakin solido oso toxikoak eta ezagutzen ez diren beste batzuk ere.

3.- Dioxinak eta furanoak minbizi sortzaile dira: hainbat organotan minbizia sortzeko gaitasuna duten elementuak dira. Oso gai egonkorak eta suntsitzen zailak dira eta biometaketaren bidez landare, animalia eta gizakiaren gorputzean pilatzeko joera dute.

4.- Dioxina eta furanoen kopuru baxuenek ere kalteak sortzen dituzte: ez dago kalterik eragiten ez duen gutxieneko mailarik.

5.- Haurrak dira arrisku handiena dutenak, horiek igaroko baitute denbora gehien gai kaltegarrien eragin-gunean. Kalteak gertatu eta handik urteetara hasiko dira ondorioak sumatzen. Eta ordurako berandu izango da... baita Errauskailua ixten bada ere.

6.- Errausketatik sortutako metal astunek (merkurioak, kadmioak,...) kalte konponezinak eragiten dituzte Nerbio Sistema Zentralean eta patologiak sor ditzakete umekietan.

7.- Dioxinen eraginpean dauden landareetan, airean baino 85.000 bider dioxina gehiago meta daiteke.

8.- Lurzoru edo janari kutsatuekin elikatutako ganaduan konposatu hauen kontzentrazio altuak pilatzen direla ikusi da, bai kontsumitu beharreko haragian, bai esnean ere.

9.- Dioxinak gantzetan oso solugarriak dira. Hau dela eta bizidunen ehunetan pilatzen dira eta kate trofikoan gora, azkeneko mailako indibiduoek airean dagoena baino milioika aldiz kontzentrazio altuagoak pilatzen dituzte.

10.- Gure familiei, bezeroei eta gaixoei izadian berez ez dauden eta errausketa-planta batean zaborra erretzearen ondorioz sortzen diren gaiek eragin ditzaketen arrisku larriez ohartarazteko ardura dugula uste dugu.

Ez dugu nahi Gipuzkoako poblazioa, Oiartzungoa eta bereziki gure seme-alabak, minbiziaren eta beste patologia batzuen ikerketatan erreferentzia izaterik, munduko beste toki batzuetako Biltzarretan eta foroetan halako eritasunen adibide gisa jartzeko.